

Pako Sodupe

IDAZLEA

Bildu eta Aralarreko boto-emaile horiei!

Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabineteak EAEko 2.122 euskal herritarri egindako galdeketa berri eman du berriki. Prentsari buruz eman dituzten erantzunei helduta: Bildu-ren boto-emaileen %56k eta Aralarreko %60k irakurtzen dute *El Diario Vasco* edo *El Correo*.

Demagun kontuan hartzeko fidagarritasuna duela inkestak, eta gure ingurune soziologikoa ezagututa, ez dela sinesgaitza gertatzen, nahiz harrigarria bai.

Nik uste, honetan bat etorriko zaizkidalda artikulu honen irakurle gehienak: Bildu eta Aralarreko boto-emaile gehienek irakurtzen dituzten bi egunkari horien helburua, dirua irabazteaz, eta kalitateko egunkaria eskaintzeaz gain, gu espainiar sentiaraztea da, *statu quo* politiko honi eustea; eta hori editorialetan, eta politikariei egiten dizkieten elkarriketetan, eta haietan kolaboratzen duten idazleen iritzi-artikuluetan, eta egunkari horiek dituzten sailen banaketan-eta, erraz frogatu liteke.

Eta halaber, beste honetan ere: Eskozian laster gerta daitekeela dirudiena hemen gertatzea, boto-emaile horiek guztiek Euskal Herri independentearen alde egingo lukete. Zergatik, beraz, esan dezagun, kontraesan horiek?

Gure etxean beti hala hartu izan da!



DANI BLANCO

Familia-tradizioa. Euskaraz irakurtzea gehixeago kostatzen zaigu, erosoak gara eta ez dugu hor indarririk egin nahi. Euskaldunak gara edo euskaldun sentitzen gara, baina gaztelaniaz bizi gara. Kalitate profesional handikoa iruditzen zaidalako, esan dezake besteren batek. Lau eragile horien batura izan liteke egiten genuen galderari gehien hurbiltzen zaion erantzuna: familia-tradizioa, kulturalki erdaldun izatea –haatik, badaude beste egunkari batzuk nagusiki erdaldunak–, eta profesionaltasunari lehenatasuna ematea?

Ondorioak oso dira tamalgarriak: ez gara gauza asteak dituen egun guztietan euskarazko egunkari bakarra kalerarazteko, oso mugatuak gaude prentsa bidez –*Gara* eta *Noticias* hartuta ere– Euskal Herri independentearen aldeko onurak agertzeko, eta, aldiz, gatazka politikoari irtenbide duin negoziatua ematearen aurkako ahotsak gailen gertatzen dira gehien saltzen diren aldizkari horien bitartez.

EAEko jende gehienak, Eskozian luze baino lehen jazo daitekeena hemen gertatzea, Euskal Herri independentearen aldeko hautua egingo luketena, egoskor jarraitzen du, guztiz horren aurka dauden egunkariak erosten. Otoi, eskizofrenia hori hautsi, alde onetik! ■



«
Ez gara gauza asteak
dituen egun guztietan
euskarazko egunkari
bakarra kalerarazteko,
oso mugatuak gaude
prentsa bidez –*Gara*
eta *Noticias* hartuta
ere– Euskal Herri
independentearen
aldeko onurak
agertzeko
»

TXANDAN

Edu Zelaieta



“Ez nago batere ados hona etortzen direnekin, gizarte laguntzak eskatzen dituztelako eta ez dutelako interesik jartzen lana bilatzeko. Honek ez du esan nahi arrazista naizenik, baizik eta alferrak direnak gorrotatzen ditudala”.

Halaxe irakurri dut irakasle ikasketak egiten ari den neska baten azterketa batean, eta odol-tantaka hasi zaizkit begiak. Txanda honetara komentario bakar hau ekarriagatik ere, perla “ez-arrazista” gehiagorik irakurri dut ene begi zaurituekin. Dena den, ados egon ala ez, halabeharrez goaz jendarte kultura-

Erronka

niztun baterantz eta, beraz, testuinguru horretantxe jardungo dute biharko maisu-maistrek. Testuinguru horretarakoxe prestatu behar ditugu hezitzaileak.

Hortaz, bi jarrera nagusi daude funtsean: hezkuntzaren hondamendia onartu ala erronkari eutsi. Izenburuan irakurria duzunez, irakurle, badakizu zeinen alde dagidan apustu: latza, ederra edota ezinbestekoa. Izan ere, Nerea eta bere ikaskideak lehen mailan daude oraindik, irakasle bilakatzeko prozesuaren hastapenetan. Lortuko al dugu bestela pentsatzea titulua eskuratu aurretik? Lortuko ahal dugu! ■

